

Auzolan I. Topaketak

Euskal Herrian Auzolan

Usurbil (Gipuzkoa)

2011ko irailaren 30ean, eta urriaren 1 eta 2an



1. Sarrera


Antolatuta dagoen herriak bere bilakaeran eragiteko gaitasuna du, bere etorkizuna gidatzeko ahalmena. **Herritarren autoantolakuntza** funtsezkoa dugu gure historiaren subjektua izateko. Gaur egun, aldiz, merkatu kapitalistak eta administrazio publikoek euren logika merkantilistak eta normatibistak ezartzen dituzte eta, ondorioz, gure bizimoduak gero eta merkantilizatuago eta normatibizatuago daude. Zentzu horretan, gero eta nabarmenagoa da **kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka**: akumulazioaren eta etekinaren logika bateraezina da bizitzaren eta elkarren zaintzaren logikarekin. Egun krisian dagoena ez da soilik ekonomia, zibilizazio modu oso bat da, munduan egoteko eta bizitza ulertzeko modu bat: naturaren suntsiketan eta jendartearen desartikulazioan oinarritzen den **modernitate kapitalista eta patriarkala**.

Herritarren autoantolakuntzak, auzolana eta herrigintzak, bere logika propioetan autozentratuz (ez logika merkantilistak ezta estatalistak), beste modu batez produzitu dezake jendartearen antolakuntza; elkarbizitza soziala eta ingurune naturala errespetatuko duen modu batez, bizitzaren birsortze-prozesuak zainduko dituen modu batez. Horrela izan da historikoki eta horrela izan daiteke aurrerantzean ere. Auzolana, herri-ekimena eta antolaketa modu komunitarioak, gure tradizioan dauden elkarbizitza modu preliberalak eta prekapitalistak diren neurrian, modu kritikotan aztertu behar ditugun argibide ugari eman ahal dizkigute. Testuinguru horretan sortu zen Auzolan proiektua.

Hau da Auzolan proiektua:

- Euskal Herriko udalerrietan Auzolan Taldeak eta Proiektuak abian jartzea dinamizatzen duen **Koordinazio eta Lankidetzako Foro** bat.
- Auzolan proiektuak dira herri garapenaren bidez pertsonen oinarrizko beharrak asetzeko helburua dutenak, gizartea eraldatzeko ikuspuntua oinarri hartuta, eta Euskal Herriaren esparru osoan, banako-, talde-, gizarte- eta nazio-emanzipazioa lortu nahi dutenak.
- Erreferentziazko esparru horretan, zenbait proiektu sustatzen dira, besteak beste: ekoizpen eta kontsumo ekologikoko kooperatibak, trukea, tokiko txanponak, buruaskitasun energetikoa lortu nahi duten energia-kooperatibak, etxebizitza, hondakinak, hezkuntza, osasuna eta kultura-proiektuak. Proiektu horiek herrietan kudeatuko dira, tokiko Batzarren bidez.
- Auzolan proiektua **Garai-aldaketako** testuinguru historiko batean gaudela jakinda eratu zen, eta ez aldaketen garaian. Proiektu horren justifikazioa egungo krisi globala da, eta batzuek esaten dioten bezala, “**Kapitalismo Globalaren Porrota**”. Krisi horretan, **Petrolioaren Gailur-jotzea** oso gertu dugun mehatxu bat da, Gizateria osoarentzat oro har, eta Euskal Herrian bizi garen pertsonentzat bereziki.

- Auzolan proiektuaren ezaugarri nagusia da **Talde-ikaskuntzako Prozesu Iraunkor** bat izatea. Herri garapeneko printzipioak oinarri hartuta, Euskal Herrian bizi garen pertsonen eta pertsonaren bizitza-etapa bakoitzaren oinarrizko beharrak asetzeko erantzunak bilatu eta sustatu nahi ditu, ikuspuntu integral batetik eta genero-ikuspuntua kontuan hartuz.



- Auzolan proiektua Euskal Herriko kulturari, lanari eta historiari estuki lotuta sortu da. Gure herriaren ezaugarri nagusia izan da garaietan zehar ekoizpen-sistemetan lana antolatzeko moduak lan komunitarioaren balioak, auzolana, berdintasuna, elkartasuna eta Batzarretan egiten zen demokrazia zuzen modu bat mesedetzeko eta sustatzeko joera argia zuela, eta neurri batean, banakoaren eta taldearen askatasuna lortu nahi zuela. Gure arbasoei esker ona eman nahi diegu, kultura hori transmititu baitigute eta, haiei esker, gaur egun, bide berri horri betiko irriken eta nahien bidez ekiteko aukera baitugu.
- Proiektu berri hori une erabakigarrian sortu da. Garai-aldaketa bizitzen ari garela jakinda, eta horren ondorioz, abian jarri dugu Auzolan proiektua, gure kulturaren berezko balio historikoa eta komunitarioak erreferentziazat hartuta.

2. Helburuak

- 2.1. Auzolan proiektuaren berri ematea Euskal Herriko udalerriei eta gizarte-taldee.
- 2.2. Herri garapena, auzolana eta tokiko batzarren printzipioak oinarri hartuta, pertsonen oinarrizko beharrak asetzeko helburua duten proiektuak eta esperientziak aditzera ematea.
- 2.3. Euskal Herriko herrietan Auzolan-taldeak eta –proiektuak sortzen laguntzea.
- 2.4. Auzolan proiektura atxikiko diren Euskal Herriko herrien sarea sortzeko oinarriak jartzea.
- 2.5. *La Cultura del Auzolan en Euskal Herria* liburuaren aurkezpena babestea.

3. Tokia

Usurbil (Gipuzkoa).

4. Datak

Irailaren 30a, ostirala, urriaren 1a, larunbata, eta urriaren 2a, igandea.

5. Programa *(aurrerapena)*

IRAILAREN 30a, ostirala

ORDUA	BILTZARRA
16:00	Inaugurazioa
16:30	Krisi globala
17:30	Herri garapena
18:30	Kooperatiba Integral Katalana

URRIAREN 1a, larunbata

ORDUA	TAILERRAK
09:30	1. tailerra: Ura eta Lurralde
09:30	2. tailerra: Elikadura / Elikagai-subiranotasuna
09:30	3. tailerra: Kultura
09:30	4. tailerra: Energia
09:30	5. tailerra: Hezkuntza
09:30	6. tailerra: Etxebizitza
09:30	7. tailerra: Oinarrizko beharrak
11:30	8. tailerra: Euskalgintza
11:30	9. tailerra: Herri festak
11:30	10. tailerra: Hacktibismoa eta tresna telematikoak
11:30	11. tailerra: Hondakinak
11:30	12. tailerra: Osasuna
11:30	13. tailerra: Ipar-Hegoaldeko sarea
11:30	14. tailerra: Desazkundera eta Komunala
14:00	Bazkaria
ORDUA	BILTZARRA
16:00	Ekonomia alternatiboa. Tokiko txanponak
17:30	Tokiko Batzarrak

URRIAREN 2a, igandea

ORDUA	BILTZARRA
11:00	<i>Auzolanaren kultura</i> liburuaren aurkezpena
12:00	Euskal Herriko Herrien Auzolan Sarea. Atxikipen-adierazpena
13:00	Ondorioak eta Auzolan II. Topaketen iragarpena
14:00	Agurra eta bukaera

6. Izen-ematea

Izen-ematea gauzatzeko prozedura honi jarraitu behar zaio:

1. Bete izena emateko inprimakia web-orriaren bidez: www.azolan.info

2. Izen-ematea

Auzolan I. Topaketak ospatuko diren egunetan jasoko da inskripzioa Informazio-eremuan (ikus mapa), han bertan, **izena emateko 30 euroko kuota** ordaindu ondoren. Inskripzioak hauetarako eskubidea ematen du:

- 3 egunetako otorduak (ostiralean, afaria; larunbatean, gosaria, bazkaria eta afaria; eta igandean, gosaria eta bazkaria).
- Ostatu estalia (udal kiroldegia) lo-zakuarekin lehenengo 350 pertsonentzat, eta gainerako kanpaketa-eremuan hartu beharko dute ostatu beren kanpinarekin.
- Dutxa-zerbitzua.

3. Oharra


Auzolan I. Topaketetan, gehienez 500 lagunek eman dezakete izena, eta web-orrian izena eman duten ordenaren arabera erregistratuko dira.

7. Informazioa

Web-orria: www.azolan.info

I. Auzolan Nazionala Topaketen antolatzailea edozein hobekuntza-iradokizun kontuan hartzeko prest dago. Iradokizunak <http://sarea.azolan.info> gizarte-sarearen bidez proposa daitezke.

Animatu eta parte hartu.



Usurbilgo Udala



 Udarregi ikastola

2
Udarregi ikastola




Kiroldedia

- 1** Asanbladak
- 2** Tailerrak
- 3** Auditorioa
- i** Informazio bulegoa
-  Ostatu estalia
-  Kanpaketa-eremua
-  Jangela
-  Dutzak
-  Kontsigna
-  Lurraldebus
-  Euskotren

Alperro Buru kalea

Udaletxea

Kontseju Zarra kalea

Frontoia

1 **3** Kultur Etxea

Plaza

i Potxoenea

Eliza

Zubiaurrenea kalea

Kale nagusia

